


HABE LIBURUTEGIA

EUSKARARI BURUZKO 2018KO BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

HABE Liburutegiko gidak • 6



EUSKARARI BURUZKO 2018KO BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

HABE Liburutegiko gidak • 6



ATARIKOA

Gida hau HABE Liburutegiak egindako aukeraketa baten emaitza da, kontuan hartuta Liburutegiak jorratzen duen espezializazio eremua eta euskararen didaktikari, euskararen alderdi psikologikoei eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari egiten dion jarraipen estua.

Gida hau kontsultatzen duenak, bertan topatuko ditu:

- Euskararen eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskararen alderdi didaktiko nahiz psikologikoak aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskal Herriko hezkuntza ereduak, hizkuntzei dagokienean, aztertzen dituzten lanen erreferentziak.
- Euskara ikasteko materialak.

Guztiak dira 2018an zehar argitaratuko lanak: liburuak, liburuetako artikuluak, aldizkarietako artikuluak. Guztiak daude kontsultagarri gure katalogoan eta katalogorako lotura eskaintzen dugu azal bakoitzean klik eginda. Dokumentuak Interneten libre daudenean, Interneterako esteka ere eskaintzen dugu.



%2,7a : euskara, generoaz mintzo?

Jaime Altuna Ramírez, Jone M. Hernández García

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 115-144 or.

Azkenengo Kale-Neurketetan joera argi bat antzematen ari da: emakumezkoek gizonenak baino gehiago egiten dute euskara. Artikulua, horren azpian egon daitezkeen arrazoiak irudikatzen saiakera bat da. Horretarako testuak hiru atal garatzen ditu. Lehenengoan Kale Neurketak hainbat urtetan utzitako datuen gaineko genero irakurketa egingo dugu. Bigarrenengan azken urteotan zenbait azterlan kualitatiboek agertutako ondorioak aurkeztuko ditugu. Eta azkenengo atalean, datu kuantitatibo zein kualitatibo horiek mahai gainean utzitako hainbat planteamendu, galdera, zein erronka plazaratuko ditugu, helburua generoaren gaineko auziak azaltzea baino azalaraztea izanik.




Ahobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat

Iñaki Arruti Landa

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 45-63 or.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lasarte-Oriako Udalaren artean argitaratu berri dute EHUko irakaslea den Pello Jauregi Etxanizek idatzitako "Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz! Herrierronka: ikerketaren emaitzak" liburua. Artikulu honetan, liburuan jasotako elementu asko ekartzea ezinezkoa izan arren, liburuak aztergai duenaren testuingurua deskribatzen da eta "Egia estila"ren barruan kokatzen den eta euskalgintzarentzat bide berri bat iradoki dezakeen ekintzaren gako eta emaitza nagusiak nabarmentzen dira alde batetik, eta horien gaineko hausnarketa batzuk gehitzen dira beste alde batetik.




Ahozko komunikazioa irakastea : norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan

Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018

2010etik 2014ra Tolosako ikastetxe guztietan gauzatu zen ikerketa bat Tolosako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ikerketa horrek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ahozko hizkuntza lantzeko materialetan eta irakasleen esku-hartzean begirada jartzen zuen. Lanketa hartatik ateratako ondorioetan oinarritzen da liburu berri hau eta eskola sistema osoari begirako ekarpenak egin nahi dizkio.



Alfabetización en euskara en las escuelas rurales del País Vasco (1900-1939)

J. Garmendia Larrañaga, I. Zabalera Imaz, H. Murua Cartón

Historia y memoria de la educación. -- 7 (2018), p. 191-233

En el primer tercio del siglo xx en las zonas rurales todavía había altas tasas de analfabetismo y la población era vasco parlante. Con el objetivo de paliar esta situación las diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa pusieron en marcha dos experiencias: Las Escuelas de Barriada en Bizkaia (1919-1938) y las Escuelas Rurales Provinciales en Gipuzkoa (1930-1938).



Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018) : Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra

Euskaltzaindia, 2018

Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018), Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra, Arantzazu, Oñati, 2018/10/4-6. Hitzaldi guztien bideoak.






Arduradun politikoek, eragile sozialek eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika : Udako Ikastaroko mahai-inguruak

N. Azurmendi, U. Anduaga, B. Uranga, G. Goikoetxea
Bat. Soziolinguistika aldizkaria. --
106 (2018), 147-175 or.


Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan 2017ko EHUko Udako ikastaroan arduradun politikoek, eragile sozialek eta unibertsitateko adituek esandakoaren kronika.



Arian C1 : euskara ikasteko metodoa

Itziar Etxabe, Beatriz Aio
Elkar, 2018


Arian C1 euskara ikasteko metodoa EGA edo antzeko goi-maila akademikora iritsi den euskara-ikasleari bere ezagutzak sendotzen, ziurtasun handiagoa lortzen eta komunikazio-esparru zabalagoetara iristen laguntzeko sortu da.



Arratiako gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza

Andoni Ariznabarreta Trigo
HIZNET, 2018

Arratiako gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza lanari helburu praktiko batekin eman zitzaion hasiera. Testuingurua eta azterketaren erdigune izan diren gazte euskaldunak kontuan izanda, horiek aisialdian euskara erabiltzeko hautua egiten duten edo ez ikertzea.



Asedio al euskera : más allá del libro negro

Joan Mari Torrealdai
Txertoa, 2018

Joan Mari Torrealdai publicó en 1998 *El libro negro del euskera*, en el que documentó la represión a la que ha sido sometida la lengua vasca al menos desde el siglo XVIII. Veinte años después, el revisionismo, el discurso de quienes ponen en cuestión el alcance de tal represión e incluso que haya siquiera existido, se emplea como ariete contra las políticas de normalización lingüística. En *Asedio al euskera*, Torrealdai pone en evidencia el supremacismo lingüístico que destila esta corriente y la endeblez de muchos de sus argumentos, sustentados a menudo en prejuicios, cuando no directamente en insultos.



Azpeitiarrez natul

Natul Euskara Elkarte
Azpeitiko Udala, 2018


Duela urtebete pasatxo hasi ginen proiektu honekin lanean, eta ehundaka hitz bildu ditugu, Azpeitiko hitzak eta esapideak bidali dizkiguten herritarrei esker. Guztion artean osatutako liburua da, beraz, azpeitiarrek egina, azpeitiarrentzat.



Bai Euskarari Ziurtagiria euskara normalizatzeko tresna baliagarri gisa

Amaia Vicario, Ane Galardi, Amaia Balentziaga
Zuzenbidea ikasten: irakaskuntzarako aldizkaria. -- 10-2 (2018)


Artikulu honetan Ziurtagiriari buruzko datuak emateaz gain, Ziurtagiri honen beharraz eta euskarari zein euskaldunoi egiten digun ekarpenei buruz arituko gara.



Basque standardization and the new speaker : political praxis and the shifting dynamics of authority and value

J. Urla, E. Amorrortu, A. Ortega, J. Goirigolzarri
Standardizing minority languages, 24-46 or.

This chapter focuses on the reworking of structures of value in Basque language revival in Spain, where normalization and standardization have occurred simultaneously. The analysis explores how a particular group of users—new speakers who have learned Basque outside the home—attribute value to standard and vernacular Basque.



Basque-Spanish bilingual children's expressive and receptive grammatical abilities

Rhiannon M. Anderson, Marcel R. Giezen, Marie Pourquié

Linguistic approaches to bilingualism. -- (2018), p. 1-23

Expressive-receptive gaps in lexical abilities have been documented for bilingual children, but few studies have investigated whether a similar gap is observed at the grammatical level. The current study assessed grammatical abilities through sentence production and comprehension tasks in both languages in 17 Basque-Spanish simultaneous bilingual 6- through 9-year-olds (both languages acquired before three years of age).




Batuz honaindikoak

Irene Arrarats

Jakin. -- 225 (2018), 29-44 or.

Katalanak Pompeu Fabraren urtea ospatzen ari dira aurten, 150 urte bete baitira katalanaren ortografia, gramatika eta lexikoa arautu zituen hizkuntzalari bartzelonarra jaio zela...



Becoming an active Basque speaker during the Bilbao festival week

Hanna Lantto

Actas do XIII Congreso Internacional de Lingüística Xeral, p. 525-531.

This paper presents the first results of an ethnographic study conducted in the festivities of Bilbao, Aste Nagusia, in the summer 2017. Several new speakers of Basque were observed and interviewed to examine how their experiences in a grass root organization that focuses on the promotion of the Basque language can lead to a muda, a performative change in linguistic habits.





Bermeo eta Ondarroa : hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak

Eneritz Albizu Lizaso, Goizane Arana Arexolaleiba

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 133-164 or.

Udalerri euskaldunetan euskararen gaitasunak eta erabilera sozialak azken urteotan izan duten bilakaera aztertzea beharrezkoa da, batez ere, bilakaera horretan beheranzko joera oso nabarmena duten herrietan. Kale neurketek eta azterlan soziolinguistikoek erakusten digute joera hori duten udalerrietako bat Bermeo dela.



Bezero Misteriotsuaren Teknika herri-administrazioetako zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan

Izaskun Kuartango Atxa

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 109 (2018), 11-43 or.

Lan honek bezero misteriotsuaren teknika du aztergai, eta horrek herri-administrazioetan zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioa egiteko ematen dituen aukerak. Azterlanaren abiapuntua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zerbitzu-hizkuntzaren ebaluaziorako egun erabiltzen dituen tresnen deskribapena da, horien indarguneak eta mugak identifikatuz.




“Bikain” euskararen kalitate ziurtagiria

M. Moraleja Murillo, L. Aranberri Urkiri, O. Vadillo Aio

Zuzenbidea ikasten: irakaskuntzarako aldizkaria. -- 10-2 (2018)

Artikulu honen bitartez, *Bikain* ziurtagiria aurkeztu nahi dizuegu, euskararen erabilera, kalitatea eta presentzia lortzeko ezinbesteko tresna dena.



Bilboko euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertzen

Maialen Zuazo Aurrekoetxea

HIZNET, 2018

Joera orokorra ez delako eta bere garrantzia delako jorratu nahi dut sakontze egitasmoa Bilbon euskaraz bizi diren herritarren inguruan; portaera horri duen balorea emateko, alegia. Herritar horien hizkuntzaren erabileran oinarritu nahi dut lana.



Bizkaierazko aditza : hirugarrena

Abeliñe Erauskin, Gorane Intxaurreaga

Labayru Fundazioa, 2018

Ahalerea, subjuntiboa eta aginterea ikasteko eta lantzeko ariketa-liburua dogu. Aditz-taulak ez eze, ariketak be hainbat daukaz. Dana dala, aditzok noiz eta zelan erabili kontuan hartu izan da, kontestu naturalen erakusgarri diran testuak erabiliz eta ahokotasunari erreparauta.



Bringing parents together : an innovative approach for parental involvement in an immersion school in the Basque Autonomous Community

María del Puy Ciriza
Journal of Multilingual and Multicultural Development. -- (2018)

In this article, I analyse the programme and pedagogy of Karmelo Ikastola, a Basque immersion school that promotes parental involvement and language use within the family. The Karmelo case is noteworthy due to its success at effectively promoting the use of Basque among students inside and outside the school along with its promotion of curricular separation between L1 native speakers and L2 learners of Basque.



CLIL as a way to multilingualism

Jon Ander Merino, David Lasagabaster

International Journal of Bilingual Education and Bilingualism. -- v. 21 (2018), p. 79-92

Content and language integrated learning (CLIL) programmes are mushrooming in many different contexts. However, research has mainly focused on their impact on foreign language learning and to a lesser extent on L1 development, whereas the number of studies undertaken in multilingual contexts in which more than two languages coexist is negligible. In an attempt to fill this gap, the overall aim of this research study was to examine the effect of CLIL on the learning of three languages in contact, namely English, Basque and Spanish in the Basque Country, Spain.



Counting matters : quantifying the vitality and value of Basque

Jacqueline Urla, Christa Burdick

International Journal of the Sociology of Language. -- 252 (2018), p. 73-96

Scholars of language policy and politics have increasingly come to appreciate that there is much insight to be gained by scrutinizing data collection practices and the debates around them. What is (or is not) counted and how counting is done has consequence, but in ways that are not always self-evident.




La "croada judicial d'Urquijote contra l'èuscar" : "enemic" d'una sola cara?

Beñat Garaio Mendizabal

Treballs de sociolingüística catalana. -- 28 (2018), p. 11-31

En aquest article s'analitzen els recursos judicials presentats per la Delegació del Govern a la Comunitat Autònoma Basca (CAB) contra iniciatives institucionals per a la normalització de l'èuscar.



D ereduan euskara berpiztu nahian : esperientzia baten kontaketa DBHn

Bittor Hidalgo Eizagirre

B. Hidalgo Eizagirre, 2018

2014-X-29an argitaratu zen BERRIAN "D ereduan espainolez? Ez, ez?" artikulua, bertan kontatuz nire aurreko ikasturteko esperientzia nolabait 'ezustekoa' Donostia inguruko DBHko D ereduko ikastetxe batean, bertako ikasleen euskara erabilera eskasa zela eta.




Diversidad lingüística y evaluación en centros multilingües

Paula Elosua Oliden

Relieve: revista electrónica de investigación y evaluación educativa. -- vol. 24, nº 2 (2018)


En un entorno en el que la diversidad lingüística es natural, la metodología de evaluación afronta nuevos retos.



Droits et discriminations linguistiques dans la Communauté Autonome Basque

Eguzki Urteaga
Cahiers internationaux de sociolinguistique. -- 13 (2018), p. 51-68

En plein débat intellectuel et public sur les droits et les discriminations linguistiques, notamment en France (Blanchet, 2016), il semble intéressant de se pencher sur le cas de la Communauté Autonome Basque (CAB), dans la mesure où cette région espagnole dispose d'une législation aussi dense que précise sur les droits linguistiques des locuteurs de ce territoire ; d'un organisme chargé de recueillir les plaintes, demandes d'informations et suggestions en matière de violations de ces droits ; et de données chiffrées concernant le non-respect des droits des locuteurs bascophones.



Duvoisin kapitainaren malura : Bonaparte printzearen itzailean

Kepa Altonaga

Pamiela, 2018

Ohikoa da Duvoisin kapitaina heroi handia bailitzan aurkeztea Biblia osoa itzuli baitzuen lapurterara, eta, halaber, Bonaparte printzea aipatzea euskal kulturaren bultzatzaile probidentzial gisa. Betiko irakurketa hori kuestionatzea izan da *Duvoisin kapitainaren malura* liburu honen abiapuntua.



EAEko administrazioa euskalduntzeko sistema : balantze bat eta aurrera begirako proposamen batzuk

Zigor Etxeburua Urbizu

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 109 (2018) 139-159 or.

Artikulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa euskalduntzeko sistema aztertu da. Horretarako, EAEko administrazioa euskalduntzeko 86/1997 dekretuak zer dioen eta nola erabili den behatu da, IV. eta V. Plangintzaldien ebaluazioak lagunduta. Azkenik, aurrera begirako proposamen batzuk egin dira, administrazioaren euskalduntzea arautuko duen dekretu berriari ekarpena egiteko.



Elebide eta Behatokia

Irantzu Marquet, Mainer Agüero

Zuzenbidea ikasten: irakaskuntzarako aldizkaria. -- 10-2 (2018)

Hiritarrok zailtasunak ditugu euskara erabiltzeko momentuan, eskubideak egon arren hauek ez direlako betetzen eta horretarako ditugu aztertu egingo ditugun erakundeak, Elebide eta Behatokia, hizkuntza-eskubide hauek bermatzeko eta hauen urraketak salatzen.





Emakumeen euskara batua

Arantxa Urretabizkaia, Miren Azkarate, Irene Arrarats, Itxaro Borda, moderatzailea, Juan Luis Zabala

Deustuko Unibertsitatea, 2018

2018ko arazoaren 30ean Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak "Emakumeen euskara batua" ekitaldia antolatu zuen Donostian. Arantxa Urretabizkaia, Miren Azkarate, Irene Arrarats eta Itxaro Borda izan ziren hizlari, eta Juan Luis Zabala moderatzaile. Bideoa.



La enseñanza del castellano en las escuelas vascas del siglo XIX : estudio histórico y lingüístico

Nerea Fernández de Gobeo Díaz de Durana
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2018

A pesar de que la investigación sobre historia de los tratados escolares ha aumentado en los últimos años, el examen de los manuales bilingües publicados en el País Vasco no ha sido llevado a cabo en profundidad. Así pues, en este trabajo se analizan de forma pormenorizada un conjunto de obras destinadas a la enseñanza del castellano al alumnado de las escuelas vascas del siglo XIX y, especialmente, de las situadas en los entornos vasco-parlantes.




Erdaldunak aktibatzeneko diskurtsoak : Mintzalasai eta BAM! maila diskurtsiboan

Eneko Gorri

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 29-43 or.

Azken inkesta soziolinguistikoak agerian eman du Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %80a ez dela euskalduna eta euskararen kale-erabilera sekulan neurtu ez den indize apalenean kokatzen dela (%5). Egoera horren aitzinean, eremu sozial berriak irabaztearen premia agerikoa da; diskurtso berri eta egokituak hortan lagundu dezakete. Baiona – Angelu – Miarritze hiri-eremua dentsitate handiko lurra izateaz gain, euskararentzat perimetro zail eta estrategikoa da.



Esanez egina : euskarari buruzko esparru formal eta informaleko diskurtsoen azterketa

Uxo Anduaga Berrotaran

HIZNET, 2018

Ikerketa-hausnarketa lan honek esparru informaleko eta formaleko diskurtsoen diren euskararen inguruko diskurtsoak aztertu eta elkarren artean alderatzea du helburu. Horretarako Eusko Jaurlaritzako adierazpen publikoetan eta ETBko umore esketxetan irakurtzen direnak hartu dira lagin moduan.



Eskola Hiztun Bila 2018 : EHB2018

Berritzegune Nagusia, 2018

Eskola Hiztun Bila jardunaldiak, ikastetxeetako hizkuntza normal-kuntzako Ulibarri programaren jardunaldiak dira. Urtero egiten dira eta bere helburua Ulibarritarren formazioa eta esperientzien trukaketa ahalbideratzea da. Bideoak.





Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari begirada bat euskaratik eta Euskal Herritik

Patxi Baztarrika Galparsoro

Revista de Llengua i dret. --69 (2018), 52-77 or.


Artikulu honek gogoeta bat eskaintzen du Gutunak euskararentzat izandako balio eta onurei buruz, bai eta haren mugei buruz ere.



Europako Eskualdeko eta Gutxiengo Hizkuntzen Europar Gutuna : laugarren jarraipen txostenaren azterketa

Beñat Miranda Urdin, Eneko Guedejo Izaguirre
Zuzenbidea ikasten: irakaskuntzarako aldizkaria. -- 10-2 (2018)

Artikulu honetan Europako Eskualdeko eta Gutxiengo Hizkuntzen Europar Gutunaren laugarren jarraipen txostenaren azterketa egingo dugu.




Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa : Euskaltzaindiaren XXI. Jagon Jardunaldia

Jean-Baptiste Coyos, prestatzailea

Euskaltzaindia, 2018

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak gizarte eragileei eta erakundeen kideei hitza eman diete, testuinguru berrian euskararen geroa nola irudikatzen duten azal dezaten.



Euskal hiztunen erregistro informaleko adierazkortasuna landu eta indartzeko barnetegi baten diseinua

Maddi Sarasua Laskarai

HIZNET, 2018

Euskal hiztunek erregistro informaleko adierazkortasunean nabaritzen dituzten gabeziak mahaigaineratu dira lanaren lehen partean. Arazo honen jatorria eta zergatiak ulertzeko saiakera egin ondotik, hau nola ematen den aztertu dugu, gaur egungo euskararen soziolinguistikaren estrategikoak diren bi hiztun profiletan zentratuz: hiztun berri eta hiztun gazteengan.



Euskal lankidetzaren Hego Amerikako hizkuntzen biziberritzea

Robbie Felix Penman, Beñat Garaio Mendizabal

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 197-226 or.

Artikulu honetan Hego Amerikako bi hizkuntza-kulturen biziberritze linguistikoan dagoen euskal lankidetzaren deskribatuko da: alde batetik, maputxeak, eta bestetik, hegoaldeko ketxueran mintzo diren komunitateak.




Euskaldunon dentsitateak zernolako eragina du euskararen kale-erabileran?

Olatz Altuna Zumeta

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 11-27 or.

Herri mailan adierazgarriak diren kale-neurketak aztertu dira artikulu honetan. Kale-erabilera zertan den jakin nahi izan da hiru gune soziolinguistiko bereiziz. Emaitzen analisiak hiru argazki ezberdin utzi dizkigu, bakoitza bere ezaugarri propioekin. Gune batean eta bestean, esate baterako, ez du berdin eragiten haurren edota helduen presentziak, ez eta hiztuna emakumezkoa edota gizonezkoa izateak. Are gehiago, batean eta bestean da goen euskaldun kopurua eta kaleko erabileraren arteko erlazioa ezberdina da. Lau udal-tipo sortu dira erlazio hori sakonago aztertzeko.



Euskaltzaindiak 100 urte

Luis Baraiazarra Txertudi

Karmel. -- 302 (2018), 3-23 or.

Euskaltzaindiaren mendeurren beraren inguruan biltzen gaitu eta *Karmel* honen irakurleak ere harantz erakarri nahi nituzke.




Euskañola : tarteko hizkuntza

Pello Etxaniz

P. Etxaniz, 2018

“Hori ez da euskara, hori euskañola da. Erdarakadak barra-barra. Min ematen dit belarrian. Zer euskara klase da hori? Esaldiak euskaraz hasi eta gazteleraz bukatzen dituzte. Zer gertatzen zaie? Zergatik hitz egiten dute horrela? Ikasle ganoragabeak dira eta gaizki ikasi dute? Edo irakasle inkompetenteak ditugu? Zertan huts egiten dute?” Euskara bigarren hizkuntza moduan ikasten duten ikasleek hizkuntza nola bereganatzen duten, zer interferentzia gertatzen zaizkien eta zer gabezia dituzten biltzen dituen ikerketa. Gertatzen diren fenomenoek ezaugarriak deskribatu, kausak argitu eta ondorioak ateratzen dituen proposamena.



Euskara Araban (1991-2016). Inkesta Soziolinguistikoen datuak oinarri hartuta

Agurtzane Ortiz de Landaluze Gokolea

HIZNET, 2018

Sei Inkesta Soziolinguistikoko egin dira orain arte Euskal Herri osoan. Lehena 1991n egin zen eta 2016an azkena. Sei Inkesta Soziolinguistikoen datuak oinarri harturik, eta azken inkestako datuetatik abiatuta, euskarak Araban azken 25 urteotan izan duen bilakaeraren berri emango da.



Euskara batua eta Ipar Euskal Herria, 1964-2018 : jardunaldia, Baiona 2018/09/13

Euskaltzaindia

Euskaltzaindia, 2018

Euskara batua eta Ipar Euskal Herria, 1964-2018, Baionan 2018ko irailaren 13an ospatutako jardunaldian emandako hitzaldi guztien bideoak.





Euskara batuaren ekarpenak eta erronkak

Itxaro Borda... [et al.]

Jakin. -- 225 (2018), 65-110 or.

Euskara batuaren ekarpen eta erronken inguruan monografikoa osatu du Jakinek, Arantzazuko Biltzarraren 50. urteurrenaren atarian. Horretarako, 30 iritzi eta ikuspegi jaso ditu.



Euskara batuaren eskuliburua (EBE) : A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak

Andres Alberdi, prestatzaile eta egilea

Euskaltzaindia, 2018

Euskara Batuaren Eskuliburuak arau, gomendio nahiz bestelako irizpideak era didaktikoan birformulatzea du helburu. Alor askotatik bildutako informazioa ageri da eskuliburuan: lexikoa, kalakoak, ahoskera, ortotipografia eta beste. Sarreretako bakoitzean argi adierazten da zer duen Euskaltzaindiak arau moduan emana, eta zer ez, zer den ebatzia eta zer den gomendio edo hobespena. Edota non komeni den batasuna egitea.



Euskara batuaren eskuliburua (EBE) : A-tik Z-ra, zalantzak eta argibideak

Andres Alberdi, prestatzaile eta egilea

Euskaltzaindia, 2018

Euskara Batuaren Eskuliburuak arau, gomendio nahiz bestelako irizpideak era didaktikoan birformulatzea du helburu. Alor askotatik bildutako informazioa ageri da eskuliburuan: lexikoa, kalakoak, ahoskera, ortotipografia eta beste.



Euskara biziberritzea azaltzeko eredu estatistikoa

Xabier Isasi

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 91-113 or.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeran, hizkuntza gutxiko hiztun guztiak elebidun direnean, euskararen erabilera, oro har, zorizko gertaera bilakatzen da. Hau da, hizkuntza gutxituaren erabilera probabilitate-eredu jakinaren arabera da. Txillardegiren azterketa matematikoa abiapuntua dela, artikuluan, euskararen erabilerearen probabilitate-funtzioa zehaztu, oinarritzko ezaugarriak definitu eta eredu estatistikoren erabilerarako azalpenak ager-tzen dira.




Euskara gara Zumaian?

Imanol Azkue Ibarbia

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 108 (2018), 141-175 or.

Azken berrogeita hamar urteotan, aurrerapauso nabarmenak eman dira euskara biziberritzeko prozesuan, hainbat elkarte, erakunde eta pertsonari esker; ibilbide horretako historia orokor nagusia jasota dago, baina ez tokian tokikoa, eta, gainera, sarritan ez da behar bezala ezagutzen eta baloratzen. Iragan hurbil hori aztertuta, eta bereziki dentsitateguneak, hobeto ulertuko dugu gaur egungo egoera, eta elkarteetatik edo taldeetatik eraginda, etorkizunera begirako hainbat helduleku aurkituko ditugu, euskara indartzen eta biziberritzen jarraitzeko.




Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa : A1-B1

Elkar argitaletxea, Beatriz Aio, Itziar Etxabe

Elkar, 2018

Euskara-ikaslearen gramatika praktikoa A1-B1 gramatika erraza, argia eta praktikoa da. Azalpen teorikoak ikasleek erraz ulertzeko modukoak dira eta ikasleentzat ohikoak diren zalantzak hartu dira aintzat. Azaltzen den eduki gramatikal bakoitzaren esanahia hobeto ulertzeko, hainbat estrategia erabili dira: irudiak, adibideak, elkarrizketak, lotura duten beste eduki gramatikalen erreferentziak, salbuespenak edota eduki nahasgarriak nabarmentzeko deiak, arauak ematean azpimarratu nahi diren xehetasunak, laburpen-etaulak eta alderdi praktikoa lantzeko ariketak.




Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa

Arrate Illaro Etxebarria, Iker Martinez de Lagos Menique

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 65-78 or.

2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3aren artean *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimena egingo da Euskal Herri osoan aldi berean, hizkuntza-ohiturak aldatu eta inertzia apurtzea helburu duen ariketa soziala. Ekimena 2016tik aurrera herriz-herriz hedatzen joan diren aktibazio sozialeko esperientzietan du jatorria eta Eusle metodologian oinarria. Artikuluan ekimenaren aurrekariak aztertzen dira, berau posible egin duten faktoreak aletuz.



Euskararen agenda estrategikoa 2017-2020

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018

Lau urteko epealdirako bide-orri zehatz eta landua aurkezten dugu, pausoz pauso aitzinatzen jarraitzeko.



Euskararen biziberritzea, eleantzasunaren garaiko erronka

Iñaki Martínez de Luna

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 47-64 or.

Euskara biziberritzeko bidean, iragan hurbileko paradigmak gaindituta daude. Horregatik, sarri entzuten den galdera da, hemen-dik aurrera norantz abiatu behar den; zein bide hartu. Lerro hau-ekin aletxo bat jarri nahi da gogoeta horretan sakontzeko. Zehatz esanda, gurean begi bistakoa den eleantzasunaren zergatiak azaltzen dira, lehenbizi. Ondoren, paradigma horrek euskara suspertzeko eskaintzen dituen aukerak eta arriskuak aztertzen dira, ahalegin berrietarako hurbilpen hori egokia izan daitekeela-koan. Azkenik, prozesua emankorra gerta dadin, zenbait gomen-dio ere luzatzen dira.



Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak

Jon Aizpurua Espin

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 106 (2018), 29-45 or.

Artikulu honek euskararen erabilerak 1991-2016 epealdian jo-rratu duen bilakaera ulertzeko gakoak aurkeztu eta azaltzen ditu. Bertan, harreman-sareak eta hitz egiteko erraztasunak hizkuntza-zen erabileran duten eragina azpimarratzen da. Horrekin batera, egileak defendatzen du familia bidezko transmisioa dela euskara biziberritzeko funtsezko tresna.




Euskararen erabilera inklusi- boa

June Fernández Casete

UPV/EHUko Berdintasunerako
Zuzendaritza : Pikara Magazine,
2018

Gida hau irakurtzea erabaki duzu; beraz, seguru asko argi izango duzu hizkuntzak paper garrantzitsua betetzen duela gizarte baten baloreen eta ideologiaren transmisioan.



Euskararen erabileraren ga- koak

Hermes. -- N. 60 (nov. 2018) = 60
zk. (2018 aza.)

Euskararen egoera jorratu du Hermes aldizkariaren 60. zenbakiak. Zenbaki berezi honetan, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politikako arduradun nagusien eta Eusko Legebiltzarreko ordezkarien ekarpenak jaso dira.




Euskararen erronkak

Eneko Gorri

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. --
106 (2018), 79-90 or.

Ipar Euskal Herrian, 2016ko Inkesta soziolinguistikoaren datuak eta Hizkuntzen Kale erabileraren neurketak aurkeztuak dira hizkuntza politika publikoaren berregituraketa urte erdi-erdian. Urtarrilaren 1ean sortu den Herri elkargoak asentuko ekintza gisa euskararen kompetentzia hartu eta EEPri esleitutako diru laguntza Estatua –Eskualdea– Departamenduaren mailara igo zuen. Lurralde horretan hizkuntza politikak 10 urte baizik ez ditu eta ziklo berri baten atarian kokatzen da. Euskaingintzak orokorrean eta Euskal Konfederazioak partikularzki, paper garrantzitsua beteko du ondoko hamarkadetan garatuko diren politiken heina definitzeko.



Euskararen eta gaztelaniaren erabilera ingeleseko irakas- kuntza-saioetan

Elizabet Arocena Egaña

Tantak. -- 30-1 (2018), 37-55 or.

Ikerketa honek H1 eta H2k H3ko ikasgelan duten presentzia eta jokatzen duten rola aztertzen ditu, kode-alternantzia oraindik hizkuntza-jabekuntzarako kaltegarritzat jotzen den garaiotan. Ikerketa testuinguru eleaniztun batean egin zen, Euskal Herrian hain zuzen, non hizkuntzak bereiztearen aldeko iritzia eta usteak sakon sustraiturik dauden.



Euskararen galera Aiaraldean (XVIII-XX) : informazio-iturri eta datu berriak

Aketza Merino Zulueta

Kondaira. -- 18 (2018), p. 1-30

Arabako ipar-mendebaldeko muturrean dagoen Aiaraldean aspaldi desagertu zen bertako euskara. Galera horren kronologia eta zehaztasun gehienak F. Barrenengoak bildu zituen duela 30 urte. Halere, azken urteetan informazio-iturri eta testigantza berriak agertu dira, Aiaraldeko euskararen historian sakontzeko aukera paregabea ematen dizkigutenak.






Euskararen herri hizkeren atlasa, IX. libk.

Euskaltzaindia

Euskaltzaindia, 2018

Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) ahozko euskararen aldaerak mapetan jasotzea du helburu.



Euskararen historia

Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua, Joseba A. Lakarra (arg.)

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2018

Liburuaren helburu nagusia da oinarrizko erreferentzia bat eskaintzea euskararen historia ezagutu nahi duten pertsonei. Eus-kalaritza garatzeko, ezinbestekoa zen eskura dugun informazio historikoa era monografikoan biltzea.



Euskararen lantze funtzionala eta profesionalen komunikazio-gaitasunen garapena osasun-alorrean

Igone Zabala

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 108 (2018), 83-96 or.

Osakidetzaren bigarren hizkuntza-plangintzaren helburu orokorra da zerbitzu-hizkuntza gisa euskararen ahozko eta idatzizko komunikazioa sustatzea. Lan honetan, helburu horrek erakunde zerbitzu-emaileei eta profesionali dakartzkien erronketako biri erreparatu diegu. Batetik, euskara komunikazio- egoera klinikoe-tan eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoa den lantze funtzio-nalaz aritu gara, alegia, terminologiaren, adierazpideen eta esti-loen garapenaz. Bestetik, profesionalen komunikazio-trebetasunen garapena dugu hizpide.




Euskararen normalizazioa segurtasunaren alorrean

Amaia Arandia, Maddi Ibarzabal, Edurne Lacadena

Zuzenbidea ikasten: irakaskuntza-rako aldizkaria. -- 10-2 (2018)

Lan honetan aztertu dugu euskararen normalizazioak Ertzaintzan izan duen garapena, eta gaur egungo egoera.



Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak

Idurre Eskisabel Larrañaga

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 11-27 or.

Oraindik orain, euskaraz bizitzea hautu bat da, berez datorrena-ren kontrako erabaki kontziente bat, eguneroko bizi praktiketan erne eta adi jokatzeko eskatzen duena. Jendeok berez datorrena-ren aurka aritzeko, erabaki horiei esanahia, zentzua eta balioa emango dien markoak behar ditugu; hau da, diskurtsoak. Diskur-tso kontra-hegemonikoak. Horrenbestez, euskaltzetasunak badu bere zoru diskurtsibo kontra-hegemonikoa. Joan den men-deko 50.ekoen amaieran zizelkatua da, ordea, eta, ondorioz, nekez egokitzen zaio egungo subjektibitate postmodernoari. Norberaren agentzian eta feminismoan egon daitezke diskurtsoa berritzeko zumeak.




El euskera de ayer y de hoy : variación y contacto

Orreaga Ibarra Murillo

Pamiela, 2018

Se recogen en este libro una parte de las inquietudes sobre el euskera de hoy y de ayer con especial atención a la variación que ha experimentado y que se está registrando hoy en día. Nos adentramos en el día a día, analizando la diversidad del euskera: los dialectos, los procesos como la convergencia y la adaptación lingüística, etc. Es decir, analizamos el impacto que provocan la convivencia secular entre las lenguas que le rodean, la huella de unas en las otras.



El euskera de la costa labor-tana : desde las encuestas de Bonaparte hasta la actualidad

Maitena Duhalde De Serra

Actas do XIII Congreso Internacional de Lingüística Xera. -- p. 307-311.

Los dialectólogos han subrayado la identidad peculiar del habla de la costa labortana, una variedad vasca situada en territorio francés. Aunque existen investigaciones de gran interés, las hablas vascofrancesas han sido en general poco estudiadas. Sin embargo, su descripción resulta crucial y urgente para la dialectología vasca, debido a los rápidos y profundos cambios que están experimentando.



EUSLE metodologia : 2017ko esperientziak : emaitza nagusien txostena

Soziolinguistika Klusterra, 2018

Eusle metodologia Aldahitz proiektuaren baitan garaturiko metodologia nagusietako bat da. Lan munduko testuinguruetan hizkuntza-ohiturak euskararen erabileraren norabidean aldatzeko proposamen metodologikoa da.



Eusle metodologia : gaztelan finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan

Pello Jauregi, Pablo Suberbiola

Bat. Soziolinguistika aldizkaria. -- 107 (2018), 97-131 or.

Eusle metodologia euskararen erabilera areagotzea ekar dezakeen dinamika bat da, kide guztiak gutxienez euskarazko ulermen on bat duten taldeetan aplikatzeko sortua. 2012an sortu genuen tresna, Aldahitz Ikerketa-proiektuan, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak ikertzeko garatzen ari garen lan-ildoaren baitan. Lan honetan, 2013 eta 2016 artean hamahiru lantegitan egindako esperientzien emaitzak eskaintzen dira.



Eusliderrak eta gero zer? Eusliderrak saioen ebaluazioa

Maialen Begiristain Grado

HIZNET, 2018

Lan honetan eusliderrak, hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerraren ebaluazio bat aurkituko duzu. Ebaluazio hau saioak jaso dituzten gazteak erdigunean jarrita egindako lana da, beraiekin egindako elkarrizketen bidez jasotako informazioan oinarritutako lana beraz.






Factores que intervienen en la influencia de una lengua a otra : el euskera en un grupo de hablantes de Valdecarros

Ainhoa Urzelai Vicente
Huarte de San Juan . Filología y Didáctica de la Lengua. -- Nº 18 (2018), p. 26-44

